Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko ekainean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.635 eskaintza erregistratu dira 2024ko ekainean, maiatzean baino 208 gehiago eta 2023ko ekainean baino 48 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko ekainean 235 eskaintza erregistratu dira Araban, 677 Gipuzkoan eta 723 Bizkaian. Eskaintzen % 14,4 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 41,4 Gipuzkoan eta % 44,2 Bizkaian.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 2,9 egin dute behera (7 eskaintza gutxiago); beste aldean, Gipuzkoan, % 27,5 igo dira (146 eskaintza gehiago); eta azkenik, Bizkaian ere, eskaintzek gora egin dute, % 10,6a hain zuzen ere (69 eskaintza gehiago).

Iazko ekainaren aldean, eskaintzek behera egin dute hiru lurralde historikoetan. Araban jaitsi dira gehien, bai ehunekotan zein balio absolutuetan, -% 7,5 (19 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan 17 eskaintza gutxiago erregistratu dira (- % 2,5); azkenik, Bizkaian eskaintzak % 1,6 jaitsi dira (12 eskaintza gutxiago).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila laguntzako teknikariena da: 350 eskaintza eta guztizkoaren % 21,4. Ondoren, teknikari zientifikoen profila dator, 300 eskaintzarekin eta % 18,4ko pisuarekin. Zerbitzuen, industriaren eta kualifikaziorik gabekoen okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistratutako eskaintzei dagokienez, erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoak % 17,6, % 15,2 eta % 13,4 baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 10 eta 8 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin, profil gutxiko eskaintzek egin dute behera, eta jaitsiera hauek txikiak izan dira balio absolutuetan; 2 eskaintza gutxiago zerbitzuetan eta lehen sektorean eta eskaintza 1 gutxiago operadoreetan. Aitzitik, eskaintzen gorakada handiena, maila absolutuan zein erlatiboan, laguntza-teknikarien profilean gertatu da, 113 eskaintza gehiagorekin eta % 47,7ko igoera portzentualarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, eskaintzak jaitsi egin dira okupazio guztietan, laguntza-teknikarien (+50 eskaintza, +%16,7) eta ez-kualifikatuen okupazioetan izan ezik (+21 eskaintza, +%10,6). Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, industriaren profilean gertatu da, 46 eskaintza gutxiagorekin eta % 15,7ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, aldiz, jaitsierarik handiena lehen sektorekoen eskaintzetan gertatu da, % 28,6ko jaitsierarekin eta 4 eskaintza gutxiagorekin

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako eskaintzen % 36,8 mugagabeak dira, % 63 aldi baterakoak eta gainerako % 0,2 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta; hala ere, hilabete honetan puntu 1 jaitsi da iazko ekainarekin alderatuta, eta 2 puntu aurtengo maiatzarekin alderatuta. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joerari jarraitzen diote. Eskaintza mugagabeak 601 izan dira, aurreko hilean baino 48 gehiago (% 8,7 gehiago). Aldi baterako eskaintzak 162tan hazi dira, 1.030 guztira; balio erlatiboetan igoera % 18,7koa izan da. Azkenik, merkataritza-izaerako 4 eskaintza izan dira ekainean, maiatzean baino 2 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 34 gutxiago izan dira (% 5,4 jaitsi dira); aldi baterako kontratuen eskaintzak % 0,9 murriztu dira, 9 eskaintza gutxiagorekin. Azkenik, merkataritzako 5 eskaintza gutxiago erregistratu dira urteko erreferentzian.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2024ko ekainean erregistratutako eskaintzen % 83,4k 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; 1.364 eskaintza guztira. Erregistratutako eskaintzen % 19,8k, 160 guztira, 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 1,1eko pisuarekin (18 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 2 eskaintza eta % 0,1eko pisuarekin.



Hileko bilakaeran, eskaintzak jaitsi egin dira esperientzia-tarte guztietan, 0 eta 6 hilabete bitartean behar dituztenetan izan ezik, nabarmen igo baitira 268 eskaintza gehiagorekin eta % 24,5eko hazkundearekin. Balio absolutuetan, jaitsierarik handiena, 6 eta 12 hilabete bitartean behar dituzten eskaintzetan gertatu da, 29 eskaintza gutxiagorekin (-%15,3); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena 1 eta 3 urte bitartean behar dituzten eskaintzetan izan da, 24 eskaintza gutxiagorekin eta % 20,9ko jaitsierarekin.

Urteko bilakaerari dagokionez, eskaintzak jaitsi egin dira esperientzia-tarte guztietan, 0-6 hilabeteko tartean izan ezik, eskaintza 1ean hazi baita. Guztizko balioetan, 1 eta 3 urte bitarteko esperientzia-tartearen beherakada nabarmentzen da, 34 eskaintza gutxiago jaso baita (-%27,2); balio erlatiboetan, 5 urtetik gorako eskaintzen murrizketa nabarmentzen da, % 66,7 jaitsi baitira (-%4 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko ekainean

Ekain honetan, erregistratutako lan-eskaintzek, batez beste, 4 hilabeteko esperientzia eskatu dute.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten eskaintzak erregistratzeko orduan egin beharreko lanaldia, eskaintzen % 19,8k bakarrik zehazten baitute lanaldia, (1.635 eskaintzatik 324 bakarrik). 324 eskaintza horietatik 280 lanaldi osokoak dira, eta gainerako 44ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 31an igo dira maiatzaren aldean, hau da, % 12,5eko igoera. Lanaldi partzialeko 6 eskaintza gehiago izan dira ekainean, eta igoera erlatiboa % 15,8koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak 60 gehiago izan dira (% 27,3ko gorakada). Lanaldi partzialeko 6 eskaintza gutxiago izan dira ekainean, eta beherakada erlatiboa % 12koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 17 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 9 gutxiago eta aurreko urtean baino 3 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,4k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.635 eskaintzetatik 304k soilik zehaztu dute.



304 eskaintza horietatik 125ek unibertsitate ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila minimo hori da gehien eskatu dena; ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak behar dituzten eskaintzak datoz, 108 eskaintza erregistratu baitziren ekainean. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilerreko profilak, 54 eta 17 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, ikasketa unibertsitarioak eskatzen dituzten eskaintzak soilik igo dira, baina nabarmen (+38 eskaintza, 43,7ko hazkundea). Jaitsi egin dira derrigorrezko ikasketen profilak (-

9 eskaintza, % -14,3ko beherakada) eta batxilergokoak (-3, % -15); azkenik, LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzek aurreko hileko 108ko kopurua errepikatu dute.

2023ko ekainarekin alderatuta, jaitsi egin dira derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzak (-8, % 12,9ko jaitsiera) eta batxilergoko ikasketak behar dituztenak (-7 eskaintza, -% 29,2). Aitzitik, gora egin dute LH eskatzen duten eskaintzek (+20 eskaintza, +%22,7 igoera) eta unibertsitate-ikasketak behar dituztenak (47 eskaintza gehiago, % 60,3ko hazkundeak).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera manufaktura industria da, % 17,3ko pisuarekin (283 eskaintza). Jarraian, merkataritzako eskaintzak datoz, 31 eskaintzarekin, hileko eskaintza guztien % 14,1.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, balio absolutuetan industriaren eskaintzek izan duten igoera nabarmendu behar da, 85 eskaintzatan igo baitira (% 42,9 gehiago); ehunekotan, hazkunderik handiena informazio- eta komunikazio eskaintzetan izan da, % 261,9 hazi baitira (55 eskaintza gehiago). Aitzitik, balio absolutuetan gehien murrizten diren eskaintzak administrazio-jarduerak dira, 36 eskaintza gutxiagorekin (%-25,5); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena garraio-eskaintzetan izan da, % 40,4ko murrizketarekin eta 21 eskaintza gutxiagorekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, eraikuntza profileko eskaintzak (-38 eskaintza, -% 29,5) eta administrazio-jardueretakoak (-23, % 18ko murrizketa) gutxitu egin dira. Beste muturrean, igoera handienak administrazio publikoan izan dira, 36 eskaintza gehiagorekin (% 35,3ko igoera) eta ondoren hezkuntzan (+30 eskaintza, % 27,8ko hazkundea).